

# **DIRU SARRERAK**

Bezeroek eguzki-panel integratua duen mugikor-zorroa erosteko prest egongo dira, eta hasierako prezioa 60–70 € ingurukoa izango da, produktu bakarrari begira, materialaren kalitatea eta eguzki-panelaren eraginkortasuna kontuan hartuta. Ordainketa bakarra izango da, eta etorkizunean aukera izango da zerbitzu osagarriak, hala nola mantentze-zerbitzuak edo aseguruak gehitzeko. Hasieran prezio finkoa erabiltzea komeni da bezeroarentzat argia eta erraza izateko, eta produktu honek ondo funtzionatzen badu, modelo gehiago merkaturatzeko aukera izango du

## **1. Diru-sarrera motak**

Gure proiektuaren diru-sarrera nagusiak ordainketa bakarreko salmentetatik etorriko dira. Bezeroek produktua –eguzki panel integratua duen mugikor-zorroa– erosten dutenean, ordainketa behin bakarrik egiten da.

## **2. Diru-sarrerak sortzeko moduak**

**Aktiboen salmenta:** Eguzki-panel integratua duen mugikor-zorroa zuzenean saltzea bezeroei.

**Harpidetzagatik saria:** Zorroaren asegurua edo urteko mantentze-zerbitzua kuota txiki baten truke eskaintzea.

**Lizentziak:** Gure eguzki-karga teknologia beste marka edo fabrikatzaileei erabiltzeko baimena ematea, beraien sarreren arabera ehuneko bat emanez.

**Broker edo komisio bidezko sariak:** Online denda edo banatzaileek gure zorroa saltzeagatik jasotzen duten komisioa.

**Publizitatea:** Beste enpresa batzuekin adostasun batera iritsi gaitezke, hainbat influencerrekin, telesai edo filmekin bezala, beraien webgunean gure produktua iragartzeko.

## **3. Prezio motak**

**Prezio finkoak:** Oinarrizko mugikor-zorroa eguzki-panelarekin prezio zehatz batean saltzea, adibidez 40 €, bezeroek argi eta erraz ulertzeko.

**Dinamikoak diren prezioak:** Egoeraren arabera aldatzen dira, esaterako, eskaera handia dagoenean, sasoiko promozioetan edo produktu berezietan. Honek esan nahi du promozioetan deskontuak aplika daitezkeela, edo zorro premiumak prezio altuagoan saltzea, bezero bakoitzari egokitutako prezioa eskaintzeko.